



## **EROSKI-K BERRITU EGIN DU EUSKADI FUNDAZIOAREKIN DUEN LANKIDETZA, KIROLAREN BITARTEZ OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO**

- **Kooperatibak ingurunearekin duen konpromisoa indartu du EAEko gizartean eragina duen kirol proiektua babestuta**

**Elorrio, 2026ko apirilaren 10a.**- [EROSKI](#)k berritu egin du Euskadi Fundazioarekin duen lankidetzaz, eta indartu egin du kirolaren bitartez ohitura osasungarriak sustatzeko konpromisoa, nola eta lurradean sakon errotua dagoen kirol proiektu soziala babestuta.

Lankidetzaz 2025ean abiatu zen. Kooperatibak ingurunean eragin onuragarria duten ekimenak laguntzen dihardu, eta horren parte da herritarrengan ohitura osasungarriak sustatzeko hau. Zehazki, haurrentzat eta gazteentzat eginda dago batez ere, eta kirola, elikadura eta heziketa etikoa konbinatzen ditu.

Hitzarmena izenpetzen, hor izan dira EROSKI Fundazioko Alejandro Martinez Berriochoa, Asun Bastida EROSKIren Harreman Institutuzionalerako eta Komunikazio Korporatiborako zuzendaria, Iñaki Isasi Euskadi Fundazioko lehendakaria eta Alexander Zapirain Euskadi Fundazioko zuzendari nagusia.

Asun Bastidak hauxe nabarmendu du: "EROSKI konprometituta dago ingurunearekin eta EAEko gizarte eta kirol nortasunaren parte diren proiektuekin, eta horren isla da hitzarmen hau. Euskadi Fundazioa erreferentea da lurraldean dituen erroengatik eta bokazio sozialarengatik, eta, kooperatiba garen aldetik, zeharo identifikatuta sentitzen gara balio horiekin".

---

**EROSKI - Dirección de Comunicación Corporativa**

Patricia Martín Sanchidrián

**Tel: 946 211 214**

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI**

Nora Garay

Nagore García de Vicuña

**Tel: 677 71 95 68**

**Tel: 630 98 66 19**

Alejandro Martínez Berriochoak, berriz, honela adierazi du: "EROSKI Fundazioan lanean jarduten gara herritarrengan ohitura osasungarriak sustatzen, eta kirola giltzarria da ildo horretan. Lankidetzaz honi esker, gizartearen txerta ditzakegu balio horiek, nola eta jarduerak fisikoa, elikadura eta ongizatea egiazko eragina duten ekimenen bitartez uztartuta".

Iñaki Isasik, berriz, hauxe azpimarratu du: "Irrikaz hartzen dugu Eroski Taldearekin itun estrategiko hau izenpetzea; izan ere, kirola baino areago doa lankidetzaz hau: elkarrekin partekatzen ditugun balioetan sakontzen dugu. Hitzarmen hau ez da bakarrik txirrindularitza eta euskal kultura sustatzeko konpromiso instituzionala: gizarte eta osasun arloko xedeak ere irmoki barneratzen ditu, ohitura osasungarriak sustatzen baititu; batik bat, gazteengan. Gure xede korporatiboak bat etortzen direnez, horrek modua ematen digu garapen eredu iraunkorrago eta arduratsuago baterantz joateko, eta, aldi berean, herritarren ongizatea eta jarduerak fisikoa kokatzeko gure ekintza bateratuaren erdigunean. Euskadi Fundazioarentzat, funtsezkoa da Eroskiren babesa izatea, bizi kalitateari buruz dugun ikuspegia eta gizartearekin duen konpromisoa partekatzen baititu gurekin; horri esker, jarrai dezakegu gure gizartearen izaeran dauden kirola eta balioak bultzatzen.

Hitzarmen hau berrituta, elkarrekin dagoen harremana indartzen da, eta balioan jartzen da kirola ongizatea bultzatu eta gizartearen eraldatzeko motor gisa. Era berean, EROSKI sendotu egiten du lurraldearekin eta balioa sorrarazten duten proiektuekin duen konpromisoa.

### **EROSKIri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.

---

### **EROSKI - Dirección de Comunicación Corporativa**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 [comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **INCÓGNITO - Agencia de Prensa de EROSKI**

Nora Garay/Nagore García de Vicuña

Tel: 677 71 95 68

Tel: 630 98 66